



## HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

**DATA:** 2015/09/30

**BILERA ZENBAKIA:** 8

**ORDUA ETA LEKUA:** Arratsaldeko 19:00etan

**PARTEHARTZAILEAK:** Emma, Maddi, Amaia, Rut, Tere, Amaia, Edurne, Ana, Rosi eta Joxe Luis.

### EGINDAKO LANAREN LABURPENA

#### LANDUTAKO GAI ORDENA

##### 1. Aurrekontuak.

Maiatzeko Herri-Bizitza lan taldearen bileran erabaki bezala, gaurko bilera hau ere aurrekontuen hausnarketei buruzkoa izango da.

Bilera gaur ere, Emma Arrondo-k bideratu eta gidatu du.

Lehenbizi, aurrez geratu bezala, herriko talde bakoitzak egindako hausnarketan informazioa jasotzea izan da:

- Arbel-Aitz elkartearen izenean Amaiak adierazi du, beraien ustez kontuan hartu beharreko bi puntu daudela aurrekontuen banaketa egiteko irzipideak hartzeko garaian:
  1. Elkarreak berak urtean zehar antolatzen dituen eta parte hartzen duen ekintzak kontutan hartzea.
  2. Herritar ororentzat, udala barne, ematen duen zerbitzua ere kontutan hartu behar dela.
- Guraso elkarteak ere bere hausnarketak ondorengo puntuetan banatu ditu:
  1. Urkiko Jaiak eta Jubilatutako eguna, aurrekontu hauetatik kanpo geratu behar luketela uste dute, bakoitzak bere diru laguntza propioa izan dezan.
  2. Ekintzak ere banatu egin behar direla, kontuan harturik, herritar guztientzat zuzenduak diren edo talde zehatz bati zuzenduak diren kontuan hartuta.



### 3. Ekintzak banan bana baloratu behar direla uste dute.

- Urkiko Elkarteak ere bere balorazioaren barne, urtean zehar egiten diren ekintza guztien zerrenda egin eta ekintza bakoitzaren gastu eta sarrerak kontuan izanik, banan banan baloratu behar direla irizten dute.
- Jubilatutako elkarteak egiten duten balorazioa da, orain jasotzen dutenarekin iristen direla (jubilatutako eguna barne) eta ekintzetarako jasotzen duten dirua aztertu behar dela, horren arabera zenbat ekintza (txangoak, ibilaldiak,...) egiteko iristen zaien kontuan izanik.
- Ijittu Kirol elkarteak momentu honetan ez dagoenez aktibo, beraiei ematen zitzaien dirulaguntza festetako aurrekontura pasako da.

Bestalde talde bakoitzari eskatzen zaio datorren urterako zer inbertsio egin beharra ikusten duen (materiala e.a. ) azarorako bilerarako presentatzea.

Azkenik, Azaroko Herri-Bizitza lan taldearen bilera, berriro aurrekontuei buruzkoa izango dela erabakitzen da, azaroak 11an, eta gaur jasotako irizpideak kontutan hartuta, Emmak prestatuko duen taulan oinarriturik, ea aurrekontuei buruzko erabaki finkoak hartzeko gai garen ikusiko dugu.

Gogorarazi urriko Herri-Bizitza lan taldearen bilera Jubilatutako elkarteak auspotzeari buruzkoa izango dela.

20:30etan bilera amaitutzat eman dugu.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Aurrekontuei buruzko irizpideak Hausnartu eta erabaki.	Azarorako	Talde eragileek.

### HURRENGO BILERA

**Hurrengo bilera, Uztailean egingo dugu.**

Gai ordena:

1. Kultur ekintzei buruzko informazioa.
2. Urriak 21ean izango da. Jubilatutako Elkarteak auspotzeari buruzko izango da.